



2002/09/09ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko uztaila**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA % 0,2 JAITSI ZEN UZTAILEAN.

Urteko lehen zazpi hileko tasa metatua % -1,6ra iritsi da, aurreko urteko aldi beraren aldean.

2002ko uztailan, % 0,2 jaitsi zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek eskainitako datuen arabera. Jaitsiera hori % 4,0koa da, jaiegunen eragina zuzenduta, balio homogeneoetan. Horiek horrela, urteko lehen zazpi hileko tasa metatuak % 1,6ko murriztea izan du, aurreko urteko aldi beraren aldean, balio absolutuetan. Jaiegunen eragina zuzenduta, berriz, murrizte hori % 1,0koa da, balio homogeneoetan.

2002ko uztailan, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *metalezko eta ez-metalezko meak; ez-metalezko industria; papera, argitalpena eta arte grafikoak; eta zurgintza.*

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzten sektoreen artean, beste hauek ageri dira: *kautxua eta plastikoa (% -8,4), ehungintza eta jantzigintza (% -7,3) eta petrolioaren fintzea (% -5,0).*

Ondasunen helburu ekonomikok, 2002ko uztailan jaitsi egin dira kontsumo-ondasunak (% -1,9) eta ekipo-ondasunak (% -0,6), eta igo egin dira bitarteko ondasunak (% +0,2).

Urteko lehenengo zazpi hileko balantzean, % 0,5 igo da kontsumo-ondasunen indizea, eta jaitsi, aldiz, ekipo-ondasunena (% -2,3) eta bitarteko ondasunena (% -1,5).

Industri Produkzioaren Indize Orokorreko aldakuntzak, uztailan, aurreko urteko hil beraren aldean, zeinu desberdinekoa izan da hiru herrialdeetan: Araban % -2,1, Bizkaian % 0,0 eta Gipuzkoan % +0,4.

Taula: 2002ko UZTAILA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarril-uztaileko tasa metatua(*)	2002ko urtarril-uztaileko tasa metatua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	-0,2	-4,0	-0,6	-1,0
Araba	-2,1	-6,1	-1,5	-0,3
Bizkaia	0,0	-3,5	-0,9	-1,1
Gipuzkoa	0,4	-3,5	0,3	-1,2
Indizeak sektore-zatiduraka				
- Euskal AE:				
Ateratze-industriak	51,6	44,7	7,5	5,7
Manufaktura-industria	-0,8	-4,9	-0,7	-1,4
Energia elektrikoa, gasa eta ura	3,8	3,4	0,6	3,2
Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:				
Bitarteko ondasunak	0,2	-3,3	0,8	-0,9
Kontsumo-ondasunak	-1,9	-5,8	-1,7	1,3
Inbertsio-ondasunak	-0,6	-5,1	-2,5	-1,6

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--